

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko apirila • 302. alea



LAU ALKATEGAI Hamaika proposamen

KLB6

Kalebarren 6
943 57 74 26
Ordutegia 9:30etik 13:00ra / 16:30etik 20:00ra



KLB6
edo
Sara jantxidenda

Mutil eta neskentzat
jantzi eta oinetakoak

Astero erropa berria





**bestelako
gipuzkoa**
www.markelano2015.eus



**eaaj
pnv**

**SORALUZE
HAZI
ARAZI**

Eguneroko hautu politikoak



Irati Trebiño

“Erosketak egitea ekintza politiko bat da, eta herriko nekazari bati edo supermerkatuan erostea aukera dezakegu”.

Bizitza hautuak egitea omen da. Baina hautu batzuk egin daitezke, eta beste batzuk larrutik ordainduko ditugu. Kotxe beltza edo gorria erostea aukera dezakegu, baina ez zein hizkuntza hitz egin nahi dugun, ez klase soziala, ez ama izatea, edo ez izatea, bizileku izango dugun herrialdea edota ohetikidearen generoa (ezta geurea ere). Kontsumoaren gizartean, kontsumitzea aukeratu dezakegu.

Jaten duguna, esaterako, non erosten dugun aukera dezakegu, baina ez da dirudien bezain ekintza inuzentea, gure osasuna eta ingurumena eta munduko gainontzeko biztanleena ere baldintzatzen ditu-eta. Erosketak egitea ekintza politiko bat da, eta herriko nekazari bati erostea aukera dezakegu, ekologikoa, konfiantzazkoa, aukera dezakegu produktu horren ibilbidea ezagutzea eta herritarren arteko harremanak sendotzea. Supermerkatu batean erostea ere aukera dezakegu, etekinak gutxi batzuen esku eta gastu eta sufrimendua milioika pertsonaren gainean jaurtitzen dituen sistema elikatuz. Almeriako negutegietatik datorren tomatea har dezakegu adibide gisa. Negutegi horietan energia ez berriztagarri ugari gatzatzen



da klimatizazioan, ongari eta pestizida kantitate izugarriak behar dira eta beste hainbeste hondakin sortzen dira. Negutegi horietan paperik gabeko milaka etorkinek lan egiten dute bizi-baldintza negargarrietan. Eta horrela lortzen da miraria: negu gorrian tomateak ekoiztea. Teknologiaren aurrerapen izugarria irudituko zaio zenbaiti, baina zeren truke? Zorpetutako nekazariak, langile esplotatuak, hondakin-meta izugarriak, kutsadura kimikoa... Erosten, kontsumo-ereduaz gain, banaketa-eta ekoizpen-ereduak ere ezartzen ari gara: azpiegitura eta energia izugarria behar duen merkantzien garraio-sistema, lurra lantzen duten pertsonen bizi-baldintzak eta munduko lurrik emankorrenen etorkizuna.

Kontsumitzaileak gara beste ezeren gaitetik, eta ezingo dugu hori aldatu egungo balore-sistema guztia zalantzan jarri gabe; gure bizimodua, harremanak, ekoizteko erak, lurralde-ereduak, diruaren boterea... Aldaketa handiak dira eta aldaketa handiek lan handia eskatzen dute, elkartzea eta antolatzea, baina eguneroko hautu politikoek kontzientzia sortzen dute eta kontzientziak aldatzeko grina.

Euskalzaletasunaren alde:



Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Urribexbarria **Maketazioa:** Oier Larreategi
Inprimategia: Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



Gotunak

Libre
plataforma

#GotzonLibre manifestua

Maiatzaren 28an eta 29an Gotzon Elizburu soraluzetarra epaituko dute Madrilgo Audentzia Nazionalan. "Terrorismoa gorestea" leporatzen diote "preso politiko" eta "jo ta ke" bezalako adierak erabiltzeagatik.

2013ko martxoan Ernai gazte-antolakundea sortu zela ospatzeko, Gazte Danbada jaialdia antolatuzuten. Gotzon Ernaiko bozeramaile zen garai hartan. Jaialdia ospatzen ari zen egunetan Xabier Lopez Peña preso hil zen Parisko Pitié-Salpêtrière ospitalean, bihotzekoak jo eta garuneko isuria izan ostean. Ospitaleratu eta astebetera arte ez zen jakin bihotzekoa izan zuenik eta senideek ez zuten jakin hil zenik bisitara iritsi ziren arte.

Gazte Danbadako ekitaldi nagusiko hitz hartzean, Gotzon Elizburuk senideei animoak helarazi eta espetxe politika salatu zuen, sakabanaketaren ondorioak salatuz, mendeku-politika salatuz eta presoek euskal herriratzeari eskatuz.

Hitz hartze horretan, fiskalak txostenean jasotzen duenez, Gotzonek "preso politiko" eta "jo ta ke" adierak erabiliz terrorismoa goratu zuela leporatzen diote. Bi urteko kartzela-zigorra eta 10 urteko inhabilitazioa eskatzen diote. Berarekin batera, beste 8 kide daude inputatuta.

Presoekiko elkartasuna eta eskubideen aldeko protesta kriminalizatu beharrean, konpobiderako eta bakerako urratsak ematea eskatzen dugu.

Hori horrela, manifestu honi atxikimendua emanda, honakoa adierazi nahi dugu:

- Presoen eskubideen aldeko lana eta elkartasuna ez dela delitua.
- Eskubideak murriztu beharrean, demokrazian sakondu behar dela elkarbizitza erakitzeko.
- Ez dela kartzelak betetzen jarraitzeko garaia. Eskubideak errespetatu eta kartzelak husten hasteko sasoa dela.
- Gotzonek bere jardun politikoaren bidez adierazitakoa ez dela delitua eta, beraz, LIBRE geratu behar duela.

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ

Badakizu errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera duzula?
Eta euskaldunok euskaraz egiten ez badugu,
zeinek egingo du ba?
Euskaraz, zeure aukera da!

aukeran euskaraz!

PIL-PILEAN
EUSKALDUNOK EUSKARAZ

Jatearen plazera, bertatik bertara

Batzoki
JATEA

ogibideak
asteburuko kartak

eguneko menuak
razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

Giro euskalduna
Etxean egindako pizzak eta txipiroiak

Bittartetik



Alberto
Iñurrieta

Oh ama Afrika

Afrikatik ihesi edo amets zoragarriaren bila? "Nekez uzten du bere sorterrira su-traiak han dituenak" kantatzen zoskun Mikel Laboa zenak.

Garai baten ugari ziran euskaldunak egoera hobe baten bila Ameriketarako bidea hartzen zebena. Gure arbasoen artean begiratuz gero, gehienok topatuko dogu batenbat. Gaur, ostera, Afrikatik gurera ematen ari da jauzi hori, hemen bizimodu hobe topatzeko esperantzaz, eta, hona ailegatu orduko, aurkitzen dituzte zailtasunak, zerrenda luzeak, gutxiagotzat hartuak izatea, gosea, eta gehienetan desengainua.

Afrikar askorentzat bizimodua ez da baxter erraza bere lurraldeetan; erregimen politiko zapaltzaileak edo, orokorrean, planetako Iparrak Hegoaldearen kontra praktikatzeko duen esplotazio sistematikoa ondorioz, bizi-baldintzak eramanekin egiten zaizkie eta perzepzio hori nabarmentzen da bereziki Europatik helden zaien informazio itxuraldatuari esker.

Afrikako Ekuatore Gineako herri txiki batean 6 hilabetez gertatutakoa ikusi ahal izan neban telebista bitartez: jasotzen zeban informazioa, zerek esnatzen zuten haien gogoa, nola begiratzen zuten hona salbazioaren bila. Eta familia askok helburutzat hartzen zeban gazte bat hona bidaltzea, "amestutako lurrera"; hori lorpenetzat hartuta. Ez nau harritzen, beraz, zein baldintza arriskutsu onartzeko prest egoten diren, ametsa bera iristea baita.

Haien eragozpenaz jabetuta, ohorea kontsideratzen dot anai-arreba afrikarrei gure artean tokia eta harrera ona egitea, sasoi baten gure arbasoei egitea nahiko genukeen modura. Badugu eta erantzunkizuna, munduaren zati honetako partaideak garen aldetik. Eta plazentziarrok badakigu solidarioak izaten.

Elkartasuna herrien samurtasuna da.

“Hedabideek diote ukrainiar gehienak errusiar zaleak direla eta ez da egia”

Anatolii Tsygненко
Ivankiv Ukraina, 1988

Bizi izatera Soraluzera etorri den ukrainiarra



Anatolii Tsygненко.

2000. urtean etorri zen lehenengoz gure herrira. Osasuna hobetzeko helburuz udako oporraldiak hemen igaro izan dituzten Txernobil elkarteko umeetako bat da. Orain, gerrak astindu du Ukraina, eta martxoan erabakizuen Euskal Herrira etortzeko hegaldia hartzea. Momentuz, ez du bueltarako txartelik erosi.

Zu Kieven zinen lanean altxamendua gertatu zenean. Zer oroitzapen duzu?

Banku bateko langilea nintzen Kieven Maidan altxamendua gertatu zenean. Kaleko giroak asko egin zuen okerrera. Armak eskuan zituzten polizia ugari zebilen kalean eta herritarren kezka areagotuz zihoan egunetik egunera. Urduritasuna handia zen. Krimea eta Donbass eskualdeak astindu ditu gehien errusiarzaleen eta ukrainiar gobernuaren aldekoen arteko gerrak, baina gatazkak Ukraina osoan izan du eragina.

“Edozein egunetan dei zaitzakete gerrara”

Zeriritziduzu gertatzen ari denari buruz?

Ezintasun handia sentitzen dut. Nire herrialdea gerran dago eta jende asko ari da hiltzen. Edozein egunetan dei zaitzakete gerrara eta 19 urtetik gorako mutilak behartuta gaude armadan sartzera. Horrek larritasun handia eragiten du: zure familia eta lagunak laga eta gerran parte hartzera behartuta zaudela sentitzeak... Horrek

dakartzan ondorioekin. Nire herriko ezagun batek hanka biak galdu ditu. Zitazioa jaso eta desobedituz gero, kartzela-zigorra jasotzen duzu.

“Esan dezaket hemen hezi nautela”

Hemen jasotzen dugun informazioa zuzena dela iruditzen zaizu?

Hedabideek diote ukrainiar gehienak erusiarzaleak direla, eta ez da egia. Badago populazioaren zati bat, %30 inguru, Ukraina Errusiaren parte izatea nahi duena, baina zifra hori urruti dago hemen sinestaz nahi digutenetik.

Baduzu arazoa laster konponduko den itzaropenik?

Denon nahia da normaltasunera itzultzea. Ukrainiar ekonomia beherantz dihoa eta ikusiko dugu nola bukatzen den. Momentuz, herritarroi tokatzen zaigu poltsikoak urratzea.

Arazorik baduzue eguneroko beharrak asetzeko?

Ukrainiar prezioak gora doaz eta hryvnyaren (moneta) balioa beherantz... soldatak ematen du etxeko alokairua, argindarra eta ura ordaintzeko, baina tomate batzuk erostea, adibidez, ia ezinezkoa da.

Txernobil elkartearen bitartez ezagutu duzu zuk Soraluze.

Hondamendiaren ostean Txernobil elkarteari esker ezagutu nuen nik Soraluzeko

familia. 11 urte nituen lehenengoz etorri nintzenean eta gogoan dut, hasieratik, etxean moduan sentitu nintzela. Maitasun osoz hartu nautela, etxeko beste bat bihurtzeraino. Esan dezaket hemen hezi nautela.

Hondamendi nuklearraren ondorioak jasaten jarraitzen duzue oraindik?

1986ko hondamendia gertatu zenean, erradiazio arriskuagatik zentraletik 60 kilometrora zeuden herri eta hiriak jendez hustu egin behar izan zituzten. Nire herria Txernobiletik 80 kilometrora dago eta isuria gertatu zenean agintariek arriskutik kanpokotzat izendatu zuten gure eremua, baina horrek ez du esan nahi eraginik jasan ez dugunik. Ukrainiako iparraldean herritar askok nekazaritzatik ateratzen zuten bizimodua eta lur guzti horiek kutsatuta jarraitzen dute oraindik. Gaur egun, gainera, isuriagatik osasun arazo larriak ari dira azaleratzen. Jendea lehenago ari da hiltzen.

“Sorarekin ere entrenatzen dut astean hirutan”

Non ikusten duzu zure etorkizuna?

Batek daki zer gertatuko den. Martxoan heldu nintzen Soraluzera eta epe motzean lan bat topatzea gustatuko litzaidake. Kiroldegiko bazkide egin naiz eta Sorarekin ere entrenatzen dut astean hirutan. Azken batean, gustatuko litzaidake beste soraluzetar bat gehiago izatea.

313 deskarga izan ditu "Alkarrekin Soraluze" aplikazioak



Gabolatzeko zubian instalatu den antena.

"Alkarrekin Soraluze" mugikorrek aplikazioak 313 deskarga izan ditu hilabete batean: "hasteko datu oso ona da, beste herri batzuekin alderatzen ibili gara eta gurea baino herri handiagoek, urtebetean, 500 eta 1000 deskarga artean izan dituzte" azaldu dute udaletik. Bataz beste, astean, 3-4 gertakari erregistratu dira (izorratutako

farolak, zuloak errepidean, sasiak mozteko eskaera, pintadak borratzekoa...) eta urgentziako komunikatuak bertatik zabaltzen ere hasi dira: kale-mozketak eta antzekoak. Epe motz-ertainean zerbitzu gehiago eskaintzen hasiko da aplikazioak: herriko agenda, autobus zerbitzuen ordu-tegiak eta SMART City proiektuko aplikazioak, besteak beste.

Sarea osatuta eta antenak egokituta

SMART herria proiektuaren baitan, maiatzean lehen aplikazioak instalatu eta martxan jarriko dira. Aplikazio horien artean izango dira Erregetxeko aparkalekuko plazen egoera azalduko duen panela, hiru wi-fi puntu, bozgorailu digitalak eta estazio meteorologikoa. Erregetxeko panela *Urbiotica* enpresak egingo ditu eta 21.563,41 eurotako aurrekontua du. Besteak, berriz, *Perosanz S.L.* enpresak egingo ditu eta 18.151,28 euroko kostua izango dute.

Motzean

Bi komertzio berri herrian

Aurtengo udaberrian bi komertzio berri zabalduko dituzte atek herrian. Batetik, Elgoibarko Berne-do anai-arrebek Kalebarren kalean martxoan zabalduko zuten *KL6* arropa denda, adin guztietarako jantzi eta oinetakoak eskaintzen dituen, eta bestetik, Iraitz Ibarzabal eta Ixa Camachoren eskutik zapatuan Mendiola industrialdeko 13. pabiloian atek zabalduko dituen *Belaitz nekazaritza eta industria hornikuntzarako etxea*. *Belaitzen* landa-eremuko jardunerako produktuak eskainiko dituzte: pentsuak, fitosanitarioak, erremintak, landareak, hazkuntzarako animaliak, ikatza... eta baita industria arloko zenbait tresna ere. Zapatuko irekiera "bezeroekin batera ospatzeko" 11:00etatik aurrera luntxa eta sagardoa eskainiko dituzte.



Udalekueetan izena emateko epea zabalik

Kukumixok uztaileko prestatu dituen udalekueetan izena emateko epea zabalik da. Herriko txikienek (4-12 urte) udaleku irekietan parte-hartzeko aukera izango dute eta izen-ematea maiatzaren 4tik 15era egin ahal izango da. BHIko 1. eta 2. mailakoak Belabaratzara joan ahal izango dira, Elgoibarko gazteekin batera, eta izen-ematea maiatzean zehar luzatuko da, Pil-pileanen edo Gazte-txokoan. BHIko 3. eta 4. mailakoen-tzat, berriz, *Kosta ala kosta* udalekuak antolatu dituzte eta izena emateko epea maiatzaren 8an itxiko da.

FotoNotizia



Oihala, erabakitze hautetsontziak eraikitze

Ehundaka herritarrek parte hartu zuten joan zen zapatuan Gure esku dagok antolatuta egin zen Joste egunean. Herritar bakoitzak erabakitze eskubidearekin lotutako mezu bat zuen idatzia bere oihal zatian eta zapatuan denak josi zituzten elkarrekin. Oihalok, ekainaren 21ean herritarrek kontsultatzearen beharra sinbolizatze Euskal Herriko estadioetan agertuko diren bost hautetsontzi erraldoiak egiteko erabiliko dira.

baso garbiketarako
eta entresakak
zortzi laguneko taldea
zure zerbitzura

SUMA
basolanak
mug. 635 71 34 08



Ingeles mintzapraktika-taldeak

Naserrekin ingelesa praktikatzen duten lau talde daude dagoeneko: maila ertainekoak eguaztenetan (17:30-19:00) eta eguenetan (15:00-16:00) batzen dira; maila altukoak eguenetan (18:30-19:30); eta oinarritzko maila dutenak eguaztenetan (15:00-16:00). Maila ertaineko bigarren taldean ez beste guztietan nahi duenak parte har dezake. Interesa duen saiora azaldu besterik ez du, Etxaburuetakoa lokalera.



Hitzaldia etorkinei bideratuta

Atzerritarren legerari eta naziotasunari buruz informatzeko jardunaldia antolatu du udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Bertan, legez kanpo daudenen zein legezko egoeran daudenen eskubideak zein diren, baimenak lortzeko bete beharreko baldintzak zeintzuk diren eta baimenak berritzeko zer egin behar den jakiteko informazioa emango dute. Horrez gain, baimena lortu ostean, naziotasunaren egoeraz ere jardungo dute eta zeregin horietan laguntzeko bitartekoak zein diren ere azalduko dute. Hitzaldia maiatzaren 5ean egingo da, 17:00etan, Antzokian.

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

Maiatzaren 29ra arte dago zabalik Santa Ana jaietako kartel-lehiaketan parte hartzeko epea. Kartelak "2015 SORALUZKO JAIK" eroan behar du idatzita eta irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Oinarriak: www.plaentxia.eus atarian.

#GotzonLibre kanpaina

Herriko eta herritik kanpoko 450 pertsona baino gehiagoren atxikimendua jaso du dagoeneko #GotzonLibre kanpainak. Maiatzaren 28an Auzitegi Nazionalean epaituko dute Gotzon, "preso politiko" eta "jo ta ke" hitzak erabiltzeagatik "terrorismoa gorestea" leporatzen baitiote. Akusazioak bi urteko gartzela-zigorra eta 10 urteko inhabilitazioa eskatu du berarentzat. Gotzonek berak eta Libre plataformak azaldu dutenez, "presoen senideei animoak bidali eta espetxe-politika salatu zuen, hori ez da delitua eta, beraz, libre geratu behar du". Libre Gotzonekin batera auzipetuta dauden beste zortzi lagunak aske lagatzeko kanpainak abiatu ditu.

Sabin Espainiaratzeko zain

Paueko auzitegiak Espainiako auzitegiak bidalitako bi euroaginduak onartu

eta gero, noiz Espainiaratuko duten zain dago Sabin Paueko komisaldegian. Gurasoen bisita jaso ahal izan du.



Herritarrek bidalitako argazkiak gotzolibre.info webgunean jaso dituzte.

Jakoba Errekondoren hitzaldia

Bertatik bertara taldeak (Alkarrekin) gonbidatuta, Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista ezagunak *Agroekologia, gure landa eremuen etorkizuna, kalitatezko elikadura* izeneko hitzaldia eskainiko du maiatzaren 28an. "Nire hizketaldiaren oinarria etorkizun posible bakarra azaltzea da: lurraren etorkizuna. Lurrarekin loturarik ez duen etorkizunik ez da bidezkoa izango hemen. Beraz ekin diezaiozun ahal den azkarren lurra eta berak ematen diguna baloratzeari. Dena lurrak ematen digu: osasuna, kalitatezko bizitza, emozioak..." adierazi du Plaentxia.eus-en maiatzaren 22an kaleratuko dugun elkarrizketan.



Jakoba Errekondoren Usurbilgo baratze publikoetan. (Dani Blanco. Argia)

Bizikale azoka berrikuntzez beteta

Maiatzaren 23an herriko merkatariek euren postuak kalera aterako dituzte. Ora-
Min arte bezala, goizean, dendarien azoka eta arratsaldean tabernarien txosnak eta pintxo-dastaketa egongo dira, baina egitarauari dagokionez berrikuntzak daude. Goizean zehar *Zoka zirko ibiltaria* eta kiroldegiko *zumba* taldea arituko dira kaleak girotzen. Arratsalderako, berriz, *ginkana* berezia antolatu dute, parte-hartzaileak bikoteka lehiatu beharko dira lokotx bilketan.

<p>TABERNATOUR ZIRKUITOA</p>  	<p>MAIATZEKO SARIA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hiru eguneko bidaia European zehar • Asteburuko menua Txurrukan (2 pertsona) • 50 €ko bonoa Criado frutadendan • 50 €ko bonoa Marimar harategian 	<p>MARTXOKO SARITUA: Javier Gabilondo</p> 
---	---	--

HAUTESKUNDEAK

Lau alkategai, hamaika proposamen

Espero bezala, EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta PP dira herrian maiatzeko hauteskundeetarako hautagai zerrendak aurkeztu dituzten indar politikoak.

Maiatzaren 24an egingo dira udal-hauteskundeak eta herrian aurkeztuko diren lau alderdiek aurkeztu dituzte euren hautagaien zerrendak. Gu zerrendaburu izango diren lau pertsonekin izan gara, euren asmoen berri jakin nahian. Hautagai-zerrendaren inguruko datu batzuk ere eskatu dizkiegu, horien arabera analisi egiteko asmoz.

Hautagai euskaldun gehiago

Euskararen ezagutzari dagokionez, lau alkategaietatik hiruk dakite euskaraz. Lehen aldiz, alderdi abertzaleen zerrendetako kide guztiak euskal hiztunak izango dira. PSE-EE eta PPK ez digute jakinarazi euren zerrendakideek duten euskararen ezagutza zenbatekoa den. Nolanahi ere, esan liteke euskararen ezagutzari dagokionez aurrerapausoa gertatu dela, nahiz eta oraindik ez dagoen bermatuta aukeratuak izan daitezkeen zinegotzi guztiak ofizialak diren bi hizkuntzak ezagutuko dituztenik.

Generoaren ikuspegitik, emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruari begiratzen badiogu, oraingoan, alkategai izango den emakumezko bakarra PSE-EEkoa da. Zerrenda osoari dagokionez, berriz, EHB eta PPren zerrendetan emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua parekoa da, gainerako bietan, berriz, gizonezkoak gehiago dira. Alderdi bakoitzak aurreko hauteskundeetan lortutako zinegotzi kopuru bera lortuko balu, kopurua ez litzateke aldatuko: 5 emakumezko eta 6 gizonezko leudeke.



Hauteskunde mahaia.

Naziotasunari dagokionez, jaso ditugun datuen arabera ez dago euskal naziotasuna edo espainiarra ez den bestelako naziotasuna duen pertsonarik zerrendetan. Esanguratsua da, kontuan hartuta, iazko datuen arabera Sorluzen gutxienez 29 naziotasun ezberdinetako herritarrak bizi direla eta espainiar estatutik kanpo etorritako pertsonen kopurua %9koa dela.

Ekonomia lehentasun

Hautagaiek lehenetsi dituzten proposamenen artean sustapen ekonomikoari dagozkionak dira gehien aipatzen dituztenak, beraz, hiru ekonomia sektoreak indartzea eta enplegua sortzea da hautagaien lehentasunezko helburua. Ondoren, hirigintzari dagozkion egitasmoak aipatzen dituzte: SAPA, Olea, kirol-

degi gaina, Erregetxea, norabide aldaketa eta abar. Kudeaketa-ereduaren atallean, berriz, herritarren parte hartzea eta garrantasuna dira gehien azpimarratzen dituzten arloak.

Jarraipen berezia

Maiatzeko udal-hauteskundeetara jarraipen berezia egingo diegu Plaentxia.eus-en. Hautagaiei egindako elkarrizketak oso-oso argitaratuko ditugu eta espazio faltaz aldizkarian sartu ezin izan ditugun zati interesgarri asko irakurtzeko aukera izango duzue irakurleok. Datozen asteetan, alderdiek aurkeztuko dituzten programen zein egingo dituzten ekitaldien berri emango dugu. Hauteskunde-egunean, emaitzak eta alderdien balorazioak kaleratuko ditugu.

Hauteskunde emaitzak	2003	2007	2011
BILDU	-	-	840 (5)
EAJ/PNV	-	567 (2)	648 (4)
EHZ – EAE/ANV	590 (3)	588 (3)	-
PSE-EE	387 (1)	455 (2)	366 (2)
EA	-	347 (2)	-
EAJ/PNV - EA	1263 (6)	-	-
PP	287 (1)	172 (2)	146
Parte-hartzea	%71	%65	%67

Iturria: Jaurilaritza. Parentesi artean, zinegotzi kopurua.

UNAI LARREATEGI AZURMENDI

36 urte, EH Bildu

Soraluzetarra da eta Soraluzen bizi da.

Ingeniaritza industrialean lizentziatua, musikaria eta urte askoan euskalgintzan eta kulturgintzan diharduena. Azken lau urteotan udaletxeko aholkulari aritu da.

“Herritarrekin batera etorkizun hobe bat margotu dezakegula sinesten dut”

**Zela ikusten duzu herria? Eta udala?**

Bizi-bizirik ikusten dut Soraluze, pasa den larunbateko Gure Esku Dagoren ekimenean zein Laskurainen omenaldian ikusi zen bezala. Udala, berriz, ekonomikoki sendo eta politika herritarrekin batera egiteko determinazioz.

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue?

Industria jarduna, baserrietan bertako produktzioa eta herriko merkataritza sustatuz

enplegu duina sortzea. Santa Ana-Olea zein SAPAko eremuen biziberritzea, herriaren berrantolaketa oso bati atea zabaltzeko. Proiektu hauek herriko aparkamentu gabezia hobetzen lagunduko lukete, Erregetxe parke publiko bihurtzea ahalbideratuz.

Zuen kudeaketa ereduak zein ekarpen egin dezake?

Erabakiak herriak hartu behar dituela sinesten dugu eta zinegotzi zein alkateak

erabaki horiek errespetatu eta aurrera eramateko lan egin behar dutela uste dugu. Gutxi batzuen mesedetan eraikitako sistemaren ordeztu, herritarren ongizatea helburu duena eraikitzeko.

Zuen lan-taldearen zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Alderdietako egituretatik baino herritarrengandik elikatuko den taldea izatea. Udaletxeko jardunean esperientziaduna eta era berean haize berriz freskatua. Oso gustura nago osatutako taldearekin.

Ikusten duzu aukerarik udal-gobernua beste indar politikoren batekin osatzeko?

Ez da gure asmoa alderdi batekin paktatzea bestea kanpoan uzteko, ez dator bat jorratu nahi dugun elkarlan bidearekin eta ez litzateke izango ona gure herriarentzat.

Zergatik erabaki duzu alkatetzara aurkeztea?

Herritarrekin batera lan eginez etorkizun hobe bat margotu dezakegula sinesten dudalako. Beti ez dut asmatuko, baina borondate onenarekin zintzo eta errespetuz egingo dut lan, hori ziurtatzen dizuet.

IKER ALDAZABAL BASAURI

38 urte, EAJ

Soraluzetarra da eta Soraluzen bizi da.

Zuzenbidean lizentziatua da (abokatua) eta Ingurugiro Zuzenbidean Masterra du. Zinegotzia da 2003tik, EAJko bozeramailea 2007tik eta Batzar Nagusietako Batzarkidea aurreko legegaldian. Baratza, usozaintza, mendia eta sukaldaritza ditu afizio.

“Soraluze arlo guztietan hazi arazi nahi dut”

**Zela ikusten duzu herria? Eta udala?**

Edozein herritarri galdetzea besterik ez dago herria zikina, pintadaz betea, berde guneak eta kale altzaritegia mantenimendurik gabe dagoela ikusteko... Orokorrean, erabateko utzikeria ikusten da. Behin eta berriz salatu dugun egoera da.

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue?

Industria eta garapen ekonomikorako batzorde bat sortzea eta administrazioa, enpresa eta merkatarien arteko lankide-

tza sustatzea langabeziari aurre egiteko. Erregetxeko lur azpian aparkalekuak eraikitzea, gainaldean aisialdirako plaza bat egokituz. Herriko zirkulazioaren norantza aldatzea. Kiroldegi gaina aisialdirako egokitzea. Herri estetika, garbiketa eta altzaritegiaren mantenimendua indartu eta berebiziko arreta ematea. Herriko auzoak indartu eta kontutan edukitzea: Sagar Erreka, Zeleta, Olea, Ezozibide eta Serafin Atxotegi, besteak beste...

Zuen kudeaketa ereduak zein ekarpen egin dezake?

Herritar guztiei irekia, gardena eta ez sektarioa.

Ikusten duzu aukerarik udal-gobernua beste indar politikoren batekin batera osatzeko?

Gure helburua hauteskundeak irabaztea da. Prest gaude akordioetara iristeko alderdi guztiekin, hori baita herritarrek galdatzen digutena.

Zuen lan-taldearen zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Esperientzia, gaitetasuna, taldean lan egiteko gaitasuna eta Soraluzek behar dituen premien jakitun dena.

Zergatik erabaki duzu alkatetzara aurkeztea?

Soraluzeko EAJko alderdikideek, nigan ipini dute alkatetzarako hautagaia izateko konfidantza, eta ohore bat izateaz gain, eskertzekoa da. 12 urteko esperientzia daukat udal-kudeaketan, umiltasunez baina ideiak argi edukita, nire helburua Soraluze arlo guztietan hazaraztea da.

PATRICIA BORINAGA ALBÉNIZ

41 urte, PSE-EE

Soraluzetarra da eta
Alegria - Dulantzin bizi da.

Enpresa eta turismo diplomatua, hainbat ofiziotan jardun du baina, batez ere, administratzaile moduan. Jaurlaritzan Etxebizitza Saileko aholkularia izan zen aurreko legealdian eta, egun, sozialisten taldearen laguntzaile lan egiten du Jaurlaritzan. Hirugarren legealdia du zinegotzi moduan.

“Jardun sozialari
lehentasuna ematen
diogu”



Zela ikusten duzu herria? Eta udala?

Plaentxi herri bizia da, plaentxitarrak parte hartzeko daukaten gogoari esker. Azpiegitura zein zerbitzuen aldetik hobera egin du, baina udal-gobernuaren pasibitatearen ondorioz herria pintada eta pankartaz beterik dago. Gustatuko litzaidake datorren legegintzaldian udalaren indarrak jendeari soluzioak eskaintzean zentratzea.

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue datozen lau urteotan garatzeko?

Formazio- eta enplegu-plan bat martxan jartzea, mikrokreditu edo abalak eskainiz; etxebizitza-plan bat garatzea etxebizitza hutsak berme guztiekin alokairuan jar daitezen; alde zaharraren eraberritzea sustatzea; baliabide gehiago bideratzea udalerrira garbitzeko; bertako komertzioa bultzatzea; gardentasunaren ataria sortzea udaletxeko edozein informazio kontsulta dadin...

NAISIR ROCHA LUBIAN

30 urte, PP

Madrildarra da eta Madrilén bizi da.

Diplomatua hezkuntza magisterioan eta teknologia berrien alorrean lan egiten du.

“Soraluzen pluraltasuna
berreskuratzea
proposatzen dugu”



Zela ikusten duzu herria? Eta udala?

Oso oso gaizki. Gaur eguneko gobernu-batzodeak gutxi batzuentako gobernatu du. Garai bateko Soraluze berreskuratzea behar da, udalaren oinarrian adostasuna eta elkarriketa zegoen garaikoa. Udaletxea alderdi baten egoitza bihurtuta dago.

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue?

Proposatzen dugu Soraluzen pluraltasuna berreskuratzea, *getto* izateari laga diezaion. Ez dut gustuko Bildu boterera heldu zenetik herria zer bihurtu den. Herritarren zerbitzura dagoen udala nahi dut eta ez interes partikularren eta alderdi baten zerbitzura dagoena.

Zuen proposatzen duzuen kudeaketa-ereduak zein ekarpen egingo lukeela uste duzu?

Gardentasuna kudeaketa publikoan; interes orokorra interes alderdikoen gainetik jartzea; guztientzako gobernatzea eta ez bakarrik geurentzako eta jardun sozialari lehentasuna ematea.

Ikusten duzu aukerarik udal-gobernua beste indar politikoren batekin batera osatzeko?

Bai, baina lor dezakegun edozein hitzarmen oinarri jardun soziala lehentetsi eta jendea benetan arduratzen duten eguneroko kezkei erantzun beharko die.

Zure lan-taldearen zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Topikoa eman dezakeen arren, ilusioa eta gure herriaren alde lan egiteko gogo, denok daukaguna.

Zergatik erabaki duzu alkatetzara aurkeztea?

Iruditzen zaidalako politikan egin daitekeen gauzarik politena aldamenekoari laguntzeko aukera izatea dela. Uste dut aportatu dezakedala enpatia, elkarriketa eta adostasunerako gaitasuna, sektarismo eza eta dedikazio osoa.

Zuen kudeaketa ereduak zein ekarpen egin dezake?

Idea eta iritzi guztiak ordezkaturik izatea ekarriko du, eta ez gutxi batzuenak bakarrik. Udal integratzailea eta ez bazter-tzailea nahi dut.

Ikusten duzu aukerarik udal-gobernua beste indar politikoren batekin batera osatzeko?


Tira, ni Soraluze hobetzeko nere ideiak eta proposamenak egiteko nago eta soraluzetarren arazoak konpontzeko. Hitzarmenak? Zailak baina ez ezinezkoak, Bildurekin izan ezik.

Zuen lan-taldearen zein ezaugarri nabarmenduko zenuke?

Soraluze hobetzeko herriaren zerbitzura jarri nahi dugun pertsonak gara.

Zergatik erabaki duzu alkatetzara aurkeztea?

Nere lehengusua den Javier Núñezek eskatu zidan, udaletxe honetako zinegotzia izan zenak, Gipuzkoako PPK herrietan hautagaiak eskaintzeko duen zailtasunagatik. Soraluzetarrei ziurtatzen diet lana, dedikazioa, zintzotasuna eta erabateko gardentasuna. Javierrek erakutsi zuen hori eta nik berdin egingo dut.



Maria Gallastegi (Eibar, 1974)

Kirol teknikaria

U-ko eremuan padel-pista egingo duzue. Zergatik padela?

Hasierarik kiroldegia eta U-ko eremua lotzeko asmoa izan dugu eta padela oso ezaguna da inguruko herrietan. Hari horri tiraka, jakin genuen praktikatzen tekniki ere oso erreza dela eta emakumeen parte-hartzea padel-jokoan ere handia izaten dela. Faktore guzti horiek kontuan hartuta proposatu genuen Alkarrekin padel-pista eraikitzea.

Noizko egongo da erabilgarri?

Lanak hastear daude eta printzipioz hilabeteko epean amaituko dituzte. Orubea urbanizatu eta ostean jarriko dute belar artifizialezko padel-pista, argiteriarekin. Gure aurreikuspenen arabera, udarako zabalik egon beharko litzateke. Printzipioz, aurrekontu faltagatik, estalkirik gabeko eremua izango da eta proposamenen artean dago ondoan ping-pong mahai bat jartzea.

Alokairu sistema erabiliko duzue?

Bai, astegunetan kiroldegian egin beharko da erreserba eta asteburuetan zabaltzeko dagoen kiroldegi-gaineko tabernan. Abonatuek deskontuak izango dituzte.

Azkenaldian kiroldegiko bazkietza kopurua zela dago?

800 bazkide inguru ditugu eta aurreikusten dugu bigarren seihilekoan bazkietzak gora egingo duela. Joan zen urte bukaeran 816 bazkide zituen kiroldegiak eta uste dugu, aurten, kopuru hori gaitzuko dugula.

Zer hobetu duzue kiroldegian?

Rokodromoa hobetzeko osagarriak jarri ditugu, entrenatzeko *campus*-a eta ariketa-taula. Gimnasioan ere bi makina berri jarri dira, eta mankuerna joko bat.

Omenaldi ederra eta hunkigarria

Pelotari moduan egindako ibilbidea aitortu eta eskertu diote pelota-eskolak eta udalak Aritzi eskainitako omenaldian. Jacinto Ruiz eta Heliodoro Alvarez pelotazaleak ere omendu zituzten, bere garaian pelota-eskolan egindako lana eskertzeko. Harmailak leporaino bete ziren eta pelotariek ikuskizun bikaina eskaini zuten.



Argazkiak: Fernan Oregi

Kirol egunean denetarik probatzeko aukera

Maiatzaren 16a kirolaren eguna izendatu dute eta helburua da egun horretan kirola praktikatzen ohitura duten eta ez duten herritarrek hainbat jardueratan batzea: "kirola kalera ateratzea da asmoa eta herritarrek parte-hartzaile bihurtzea, lagunartekotasuna landu nahi dugu, elkarkidetzak sustatu eta ondo pasatu". Egun osoko egitaraua antolatu dute eta tartean herriko talde eta kirolariek euren abileziak erakusteko aukera ere izango dute.

Goizean:

- 11:30ean *Spinning* (Kiroldegiko terrazan)
- 11:30ean *Herri-kirolak* (Zubian)
- 11:30ean *Jolasak* (Plaza barrira eta Kalebarren)
- 11:30ean *Rokodromoa eta tirolina* (Plaza zaharrean)
- 11.30ean *Errugbia* (Instituto ondoan).
- 12:30ean *Kriketa* (Instituto ondoan).
- 12:00etan *Petanka* (Petanka zelaian).

Arratsaldean:

- 18:30ean *Boxeo* (Zubian)
- 19:15ean *Giza-probak* (Zubian)
- 20:00etan *Dantza* (Zubian)



Txori kantarien txapelketa bueltan



Patxi Luque, txapelketaren antolatzailea.

Datorren zapatuan Pedro Luqueren oroimenezko txori kantarien lehen txapelketa egingo da Ezoziko futbol-zelaian. Patxi Luque txorizaleak bultzatu du ekimena eta aspaldiko urteetan herrian egin barik zegoen txapelketa berreskuratzearekin batera, txorizale amorratua zen bere aitari omenalditxoak egin nahi izan dio. Lehiaketa goizeko 9:00etan hasiko da futbol-zelaian eta hogeiren bat parte-hartzaile izatea aurreikusi dute, Euskal Herriko eta Espainiako hainbat lekutatik etorritakoak.



Amaia Aldai (Eibar, 1958)

Liburuzaina

Ohitura badago euskaraz irakurtzekoa?

Umeak eta gazteak dira euskaraz gehien irakurtzen dutenak; ohitura moduan, jende helduak gehiago jotzen du gaztelarrera. Iruditzen zait helduek euskarazko eleberririk irakurtzera animatzen direla liburuak berak sariren bat jaso badu edo eleberria ezaguna egiten bada.

Zein da euskarazko libururik irakurriena?

Helduen mailan, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* eta Uxue Alberdiren *Euli giroa* eleberririk irakurri dira gehien. Gazteen artean Jasoen Osororen *Esekiel noraezean* eta Mikel Balberderen *Ertzean* lanek izan dute arrakasta eta umeen artean, berriz, *Ametsa dream* Peru Magdalenarena eta Jeff Kinney-ren *Gizajo baten egunkaria* eleberririk.

Zertan lagunduko dio "Irakurri, gozatu eta oparitu"-k euskal literaturgintzari?

Euskaraz irakurtzeko ohitura falta da problema nagusia, egunkariekin ere igarzen da, Berria oso jende gutxik darabil eskuarte. Egitasmo honek euskarazko liburuak lehen planora eraman nahi ditu eta, tarte batean bada ere, erdarazkoetatik gailen daitezen lagundu; irakurleen atzearia deitu nahi dugu, finean.

Liburu eskaintza zabala dago. Zuk zein liburu gomendatuko zenituzke?

Batzuk aipatzekotan, niri Miren Agur Meaberen eleberria oso interesgarria iruditzen zait, baita Ana Malagonen *Lasai, ez da ezer gertatzen* liburu ere. Hala ere, liburutegian 15.000 liburu inguru ditugu eta horietatik %30a eskuratu daiteke euskaraz. Hurbildu eta kuxkuxeatu, irakurtzearen plazera lehen pertsona probatzera gonbidatzen zaituztet.

Liburu gustukoenak deskontuarekin



Iratxo, liburutegia eta Pil-Pilean, egitasmoaren bultzatzaileak.

euskaraz irakurtzea, alegia. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango da. **Gozatu.** Liburuak irakurri, liburutegira itzuli eta fitxa simple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburu eta zer iritzi dugun adierazita. Fitxa hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea emango die parte hartzen dutenei, ondoren Iratxon erabili dezaten. **Oparitu.** Azken pausua, liburuak oparitzea da: lagun bati, senide bati, edo norbere buruari.

Liburuak %25 edo %50 merkeago

Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein libururen prezioaren %25 ordaintzeko aukera izango dute partaideek Iratxo liburu dendan. Pil-pilean euskara elkarteak bazkideak eta mintzalagunak, berriz, %50eko deskontua izango dute.

Ezkerrean 30era arte dago *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoan parte hartzeko aukera. Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pausua eman behar dira parte hartzeko. **Irakurri.** Lehenengo pausoa irakurtzea da,

Musika saioak Gaztelupen

Datozen egunotan Texas, Madril, Nafarroa eta Iparraldeko musikariek bisitatuko dute Gaztelupe. Gaur (apirilak 30) Paul Ortak eta Tonky de la Peñak *Hard time Blues* diskoa aurkeztuko dute iluntzeko 21:00etatik aurrera. Barixakuan berriz, Joseba B. Lenoir musikari beraterra kantari gisa arituko da gaueko 23:00etan, Felix Buff bateria-jotzaileak lagunduta. Maiatzean beste hainbat emanaldi izango dira: 8an Oskar Benas hirukoa, 16an Baobabs will destroy your planet eta maiatzaren 24an Victor de Diego jazz trio (Vermouth musikalean).




Zorion agurrak




Lore Leturiondo Garcia
Apirilan 11n 10 urte!
Zorionak eta muxu haundi-
haundi bat, etxekoan partez!




Sugoi Zubizarreta Revuelta
Apirilan 11n 2 urte! Zorionak
potoko! Muxu erraldoi bat,
etxeko danen partetik!




Andoni Calles
Apirilan 7xan. Ta urte
askotarako! Familixia.



Irati Oregi Mayo
Apirilan 10ian 3 urtetxo!



Ioritz Azpitarte
Apirilan 2xan. Zorionak
politiori eta muxu bat,
etxekuen partez!



Amaia Heras eta Ioritz Reglero
Maiatzan 5ian eta 17xan
38 eta 6 urte!!! Zorionak eta
muxu bana etxekuen partez.



Maria Jesus Arrizabalaga
Apirilan 17xan
Zorionak ama, amama!
Pila maitte zaitugu!
Etxekuak



Ekain Larrañaga
Apirilan 21ian 11 urte!
Zorionak mutil-haundi! Muxu
goxo pila, danon partetik!



Aitor Agirre
Apirilan 27xan
Marrubi eta txokolatzeko
patxo pila, etxeko danon
partetik!



Urko Unamuno Fernandez
Apirilan 26xan 3 urte.
Zorionak mutil-haundi!!!
Muxu haundi bat batez ere
Iratin partez.



Markel Cerrejon
3 urte apirilaren 26
Irribarrez beteriko bete
dituzun hontan, muxu goxo
asko danon partez!



José Ramón eta Nahia
Apirilan 4an eta 11n urtiak
bete ditzuzelako,
patxo haundi-haundi bat,
etxeko guztien partez!



Maite Quintanilla
Apirilan 15ian. Barre algaraka,
jolasean, sentitzen, pentsatzen
eta zoritzen... bizitza goxoki
bizitzen jarraituizu. Muxu pila
Pil-famixian partetik!




Joanes Jainaga
Urtebete maiatzaren 11n
Ondo ondo pasa zure
lehenengo urtebetetzear!!
Muxu haundi bat etxekoan
partez!



Begoña Txurruka Olabarria
Super mega asko maitte
zaitugulako, patxo erraldoi
bat Xiker, Maddi eta Iratin
partez.



Oier Vaquero Agirre
Apirilan 15ian 3 urte
poztasunez beatek!
Muxu potolo erraldoia
etxekuen partez.



Ghazi Ur Rahim
5 urte apirilaren 28an.
Irribarreen poztasuna eta
maitasuna izan ditzazuela
egunero.

Jaiotakoak eta hildakoak



Irati Ariznabarreta Jauregi
Eki Azkorbebeitia Soria
Uxue Kortazar Pulido
Nour Alhouda Haddad



Prudencio Rodriguez Rodriguez

Lehiaketa

Galdera

Zenbat liburu mailegutzen dira urtean?

• 1500 • 2400 • 3200

Saria: Jakoba Errekondoren

Bizi baratzea liburua



Aurreko aleko erantzuna

14 lapurreta egin ziren joan
zen urtean

Irabazlea

Miren Gallastegi



Oharra: lehiaketako irabazlea aukeratzeko
zozketa alea atera eta hurrengo barixaku
eguerdian egiten dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-posta bidali **aldizkaria@pilpilean.com**
datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



MENDIZABAL
okindegia
Egurrezko labean
egindako ogia
Kalabarren, 10
Tel. 943 75 20 91
Baltagiota, 6
Tel. 943 75 13 99



Eguerditan
rabak, txanpiak, olaganak,
patata minak eta kroketak
(ebxera eramateko ere bai)
Gauetan
ogitartekoak
eta plater
kombinatuak
EDURTZA
kafetegia
Santa Ana, 12
Tel. 943 75 13 83



Iturria: Patxi Luque.

Txori kantarien txapelketak

1973. urteko txori kantarien txapelketa. Pedro Luquek irabazi zuen kardantxilo mixto batekin. Garai hartan afizio handia zegoen txori kantariak hazteko eta urte askoan antolatu zen txapelketa herrian. Azkenengo antolatzailea Eibarko Diana ehiza eta arrantza elkartearen izena zen.

Lehenengo ilaran ageri dira: Maria Gracia Cifuentes, Ana Clara Luque (besoetan dagoen umea), Pedro Luque, Anastasio Basauri Motxa (saria ematen).

Pedro txorizale amorratua omen zen, "txiki-txikitatik izan zuen afizio handia eta etxean txori mordoia izaten zuen. Lehiaketetan ere parte hartu zuen" Patxi semeak azaldu digunez. Orain, berak eusten dio afizioari.

ehbildu rekin Soralezetar danok
garaile!
con ehbildu ganamos todas

Unai Larreategi - Lorea de Castro - Roke Akizu - Ainhoa Unamuno - Xabier Arribillaga
Iosune Egaña - Ione Alberdi - Roman Maiztegi - Mikel Santiago - Txaro Lete
Jose Luis Arizaga - Mikel Argarate - Hiart Arluziaga - Maite Narbaiza

ehbildu

AURRE-MATRIKULAK: Maiatzaren 25tik ekainaren 5ra

ATE IREKIAK: Maiatzak 14, 18:30etan



ORDUTEGIA:

Maiatzaren 25etik 27ra: 10:00etatik 13:30etara.
 Maiatzaren 28tik ekainaren 5era: 08:00etatik 14:30etara eta
 15:30etatik 18:30etara (ostiraletan goizez bakarrik).

Ibargarai, 1 20570 Bergara
 943 76 38 40 (943 76 24 91)

www.maltuna.com maltuna@saremail.com

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Mekanizazioa (A-D).
- Instalazio elektrika eta automatikoak (A-D).
- Administrazio kodeaketa. (A-B).

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. (A-D + Eleanitza)
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa. (A-D + Eskaintza Partziala + Eleanitza).
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia. (A-D).
- Administrazioa eta Finantzak. (A-D + Eleanitza)
- Mekanika Industrialia. (D)

LANBIDE HEZIKETA DUALA

ESPEZIALIZAZIO GRADUONDOKOA: Hitzeko estazioen graduondokoa

SARBIDE FROGARAKO PRESTAKETA KLASEAK.

ESKAINZA PARTZIALA: Fabrikazio mekanikoko produzioaren programazioa.

LANERAKO FORMAZIOA: Langile eta langabetuentzat ikastaroak.

ESKAERAREN ARABERAKO FORMAKUNTZA.



**MAI-ko APLIKAZIOA
 ZURE MUGIKORREAN!**

Ordu eta Gai Praktikoak, irakasketa formazioa,
 ikasleentzako egutegia, mapa, lan proiektuak... eta abar.

<https://m.maltuna.com>

Eskuragarri ere:



IES Elgoibar-Arreiturre BHI



Maite Quintanilla Lete

1. Zer ikasketa egiten ari zara? Edo zer ikasketa egin duzu eta zer lan daukazu?

Lehenbizi Heziketa Berezia ikasi nuen Donostiako Irakasle Eskolan. Eta horren ostean, berriz, Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatu nintzen Donostiako fakultatean.

Duela 5 urtetatik Soraluzeko Pili Pilean Euskaldunon Elkartearen dihardut lanean. Kulturgintza, euskalgintza, aisialdia, hezkuntza ez-formala... dira gaur egun nire lan eta ilusio esparru.

2. Zuk Elgoibarko Institutuan egin zenuen Batxilerra. Zein oroitzen daukazu?

Oroitzen onak daukat. Soraluzetik kanpora egindako lehenbiziko pausoa izan zen eta ikuspegia zabaltearekin batera, harremanak egiteko aukera bizia izan nuen. Gela barruan beste ikasi genuen ikaskide eta lagunekin. Gustatzen ez zitzaizkigunak aldarrikatuz eta hezkuntza eredu euskaldun, hezkidetzaille... baten alde jardunez ere aritu ginen bertako ikasle mugimenduan.

Horrez gain, gogoan ditut besteak beste San Juan Bosko eta Euskararen egunak, festa eta umore goxoa egindakoak.

3. Nolakoa zen bertako giroa?

Garai hartako giroa euskalduna eta ona zela esango nuke; bai gelakideen artean eta baita gela ezberdinen artean ere. Deba, Elgoibar, Lastur, Itziar, Mendaro eta Soraluzeko hainbat gazteri elkar ezagutu eta harremanzako aukera bizia eskeini zigun, Elgoibarren ikasi izanak. Oroitzapen goxoa daukat!



Iosu Arriola Oregi

1. Zer ikasketa egiten ari zara? Edo zer ikasketa egin duzu eta zer lan daukazu?

Komunikazioa ikasi nuen Deustuko Unibertsitatean eta momentu honetan Marketing Masterreko proiektuan ari naiz lanean IK4-TEKNIKER-en, Marketing departametan.

2. Zuk Elgoibarko Institutuan egin zenuen Batxilerra. Zein oroitzen daukazu?

Oso oroitzen onak daukat, bai esperientzia aldetik eta baita ikasketen arloan. Zientifikoa hasi nuen lehenengo urtea, hala ere, bigarrena humanistikoan egin nuen gehiago interesatzen zitzaizkidan arloak jorratzen zituelako. Momentu artan orientazio bulegotik jaso nuen laguntza ezinbestekoa izan zen aukera egokia egin nezan.

3. Nolakoa zen bertako giroa?

Institutoko giroa erabat aparta zen garai artan. Esan bezala, esperientzia aparta izan zen eta Elgoibar, Mendaro, Deba eta Itziarreko ikasle pila bat ezagutu nituen eta gehienak lagun apartak dira oraindik ere. Institutuan ikastea Deba Behoko jendea ezagutzeko aukera ezin hobea dela esango nuke. Horretaz aparte, irakasleei dagokionez, beraiekin izandako harremana oso ona eta gertukoa zela esango nuke.

Aurrematrikulazioa: Maiatzak 4 tik Maiatzak 14-ra

Informazio Bilerak: Maiatzak 4 Soraluze BHI institutuan arratsaldeko 18:00-etan

Telefonoa: 943 748 397 E-posta: 013431@hezkuntza.net
 www.elgoibarbhi.eus





Deskontuak

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskainiko dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **apirilaren 30etik maiatzaren 15era** arte.

AINHOA ILEAPAINDEGIA

Kolorea eta moztu

25,6€

Lehen
32€

Deskontua
%20



Izena: _____

Tel.: _____

MGS ASEGURUAK

Bizitza aseguruak: Heriotza (2. mediku baten iritzia, bidaia asistentzia, telefonozko arreta zerbitzua)

45€

Lehen
65€

Deskontua
%30



Izena: _____

Tel.: _____

JAVIER ALBERDI HARATEGIA

1 Kg. txahal sahieski + 1 Kg. haragi xehatu + oilasko bat

15€

Lehen
20€

Deskontua
%25



Izena: _____

Tel.: _____

BOLINTXO OKINDEGIA

Ogibitartekoa eta freskagarria

2€

Lehen
2,5€

Deskontua
%20



Izena: _____

Tel.: _____

Zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Martxoako zozketaren irabazlea: Jose Agustin Jauntsarats

NIK,
HERRIAN

